

TXANTXARREKA GAZTETXEA

Udal gobernuarekin izandako bileraren balorazioa.

2018ko Irailaren 13an



Aurreko astean udalarekin izandako bileraren balorazioa egin nahi dugu. Bileran Aitziber San Roman Abete, gizarte ekintzako zinegotzi delegatua; Martin Ibabe Eceiza, gazte-kirol eta segurtasun zinegotzia; eta Iñaki Gurrutxaga, kabinete buruarekin bildu ginen.

Bileraren eskaria egin eta hurrengo egunean bilerara deitu gintuzten. Hasiera batean udalak biltzeko izandako prestutasuna positibotzat jo bagenuen ere, jasotako erantzuna ez zen inondik inora egoerak eskatzen duenaren mailakoa izan.

Udara honetan zehar Donostiara iritsi diren migratzaileen egoerari irtenbide bat eman asmoz, Harrera Sarea osatzen duten herritarrek Txantxarreka gaztetxeari eginiko eskaerari erantzun bat emateko, beharra zuten migratzaileei aterpea ematearen erabakia hartu zen. Hala ere, gaztetxean bidean dauden migratzaileen ehuneko txiki bat baino ezin izan dugu artatu. Horregatik, azken hilabete hauetan ezagutu dugun migratzaileen egoerari irtenbide azkar eta zehatz bat emateko, udalari bilera eskatu eta bertan, besteak beste, honako hau eskatu genuen:

- Trantsituan dauden migratzaileentzat beharrezkoa duten denboraldira egokitutako egoitzaren epea luzatzea.
- Hemen bizi eta lan egin nahi duten migratzaileak daude. BAI, DONOSTIAKO UDAL ORDEZKARIAK, HEMEN GERATU NAHI DUTENAK BADAUDE. Batetik, egun erabilgarri baina arrazoi desberdinengatik hutsik dauden aterpeak ireki, bizi dugun egoerari bat-bateko erantzuna emateko. Bestetik, aterpe berri bat ireki epe luzera begira, berria zaigun baina iraunkorra izango den egoera honi behar bezalako erantzuna eman ahal izateko. Badakigu, katastroaren arabera, udalak badituela nahiko baliabide eskaintza duin bat egiteko. Zer diozue honako lokaletako bat egokituko bazenute?
 - San Bartolome 5; 149 m^2
 - San Roke 122; 577 m^2
 - Leire plaza (Morlans); 308 m^2
 - Casares 9; 526 m^2

Jakingo duzuenez, azken hilabetean zehar Txantxarreka eta Harrera sarea udalak trantsituko migratzaile izendaturikoen etengabeko harrera burutzen ari gara.

Udalaren aurrekontu falta eta baliabide ezaren argudioa ez zaigu inolaz ere nahikoa iruditzen. Jakin badakigu, udalak aurrekontu eta baliabide nahikoak badituela, borondate kontua da. Berriz ere galdetzen dugu, nola liteke herritarrok Gaztetxe batekin batera udalari dagokion eskumeneko jarduna burutzeko gai izatea, eta zuek ez? Hain zaila al da?

Astearteko tokiko gobernu batzarraren ondoren Eneko Goiak aipatu zuen administrazioan gauzak ez direla hain azkar joaten. Baina gai hau ez da berria, aurreikusten zen zerbait zen eta, gure ustez, nahikoa denbora izan dute egoera larri honi erantzun xume bat emateko. Aipatu zuen ere Goia alkateak, bilera ondo joan zela eta harremanetan jarraitzen dugula udal gobernuarekin. Gezurra. Gure ustez bilera ez zen ondo joan.

Izan ere, garbi geratu zitzaigun hemen gelditu nahi duten migratzaileen egoera konpontzeko borondaterik ez dutela. Horren adierazgarrietako bat udal ordezkariak bileran izan zuten jarrera oldarkorra. Egoerari inolako irtenbiderik eman nahi ez eta gaztetxea erasotzeaz gain, bertako kide garenok mesprezatu gintuzten: “tonto utilak” ginela esan, gaztetxean ume eta emakumeen bahiketa bat izan zela aditzera eman, “secuestro” hitza hainbatetan erabiliz. Horrez gain udaleko gizarte hezitzaileak gurekin “oso haserre” zeudela ere leporatu ziguten, “edonork ezin omen duelako harrera lana egin”. Deigarria egiten zaigu udal aterpetxeetatik jendea Txantxarrekarra bideratu izana.

Horrez gain, ez dugu salatu gabe utzi nahi, Afrikatik datozen migratzaileen perfila bertarako erabilgarria ez dela aipatu izana; ez omen daude hemengo ekonomiarako prestatuak, Hego Amerikar edo Siriarrak aldiz badaudela azpimarratuz. Lotsa behar da gero hau esateko. Donostiako udal bulegoetan ezertxo ere lortuko ez dugunaren susmoa izanda ere, Eneko Goia “alkate jaunaren” adierazpenak entzun ondoren, gu prest gaude egoerari irtenbide bat emango dion harremana mantentzeko.

Bestalde, egoera honi erantzun humanitario bat emateko herritarrak mobilizatzeraz deitzen ditugu. Bestetik, inguruko herrietako udalak euren bitartekoak eskaintzera gonbidatzen ditugu.